

# Idatzizko bitartekotza-jarduera:

## Erakundea sare sozialetan

**DENBORA:** 50 minutu

Erreferentziazko hitz-kopurua: 150 hitz inguru


### EGOERA

Enpresa edo erakunde bateko komunikazio-arduraduna zara eta, erakundeko zuzendariak eskatu dizu mezu batean azal diezaiozun zein diren gazteen ohiturak sare sozialak erabiltzeko orduan, irudipena baitu aldaketa garrantzitsua gertatu dela azken 5 urteetan eta jakin nahi baitu gaur egun zein diren gazteen artean erabilienak, erakundeak argitaratzen dituen edukiak gazteen eabilera-ohituretara egokituz joateko. Horretarako, Euskal Gazteen Behatokiak argitaratutako inkesta batez baliatuko zara.

### EGITEKOA

**Idatzi** mezu elektronikoa zuzendariari, xedetzat izanik inkestaren emaitza nagusien berri ematea. **Azaldu** grafikoak erakusten duen joera edo bilakaera, eta, horrekin batera, **proposatu** erakundeak zein sare sozial lehenetsi beharko lukeen eta **esan zergatik**.

Hau da Euskal Gazteen Behatokiak argitaratutako inkesta:



**DENBORA:** 50 minutu

Erreferentziazko hitz-kopurua: 150 hitz inguru

**Bitartekotza-proba balioesteko ebaluazio-irizpideak:****Informazioaren kudeaketa**

Testuko informazio garrantzitsuena identifikatu eta jasotzea, eta beharrezko denean, bere adibide, iritzi, azalpen edota ñabardurekin osatzea.

**Testuaren birformulazioa**

Komunikazio-egoeraren eta xedearen arabera antolatu eta birformulatzea sorburu-testuko informazioa, eta horretarako, diskurtso eta komunikazio-estrategia egokiak baliatzea.

**Erregistroaren aukeraketa**

Kontuan hartzea mezu-hartzailearen aurre-ezagutzak, interesak, beharrak..., eta horietara egokitzea erregistroa eta estiloa, hizkera, egitura, esamolde eta lexiko egokiak erabiliz.

**Hizkuntzaren erabilera**

Hiztegi eta hizkuntza-baliabide aberatsak erabiltzea, eta egoki baliatzea perpausak nahiz perpaus barruko osagaiak lotzeko mekanismoak, ongi kohesionatutako testua sortuz eta mezua eraginkortasunez ulertarazteko estrategiak erabiliz.